



Hil zituzten hiru anarkistaren gorpuzkiak eman dizkiete senideei

IRUÑEA— Frankistek Nafarroan eraildako hiru anarkistaren gorpuzkiak itzuli dizkiete senideei, Ana Ollo Nafarroako Gobernuako lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako kontseilariaren eskutik. Tomas Mardones Llorente eta Segundo Hernandez Blanco arabarren eta Tomas Nache Guzman almeriarraren (Espainia) gorpuzkiak dira. Mardones eta Nache 1936an hil zituzten, Ezkabako gotorlekutik ihes egitea leporatuta; Hernandez, berriz, Elian hil zuten, Eguesibarren, 1938ko ihesaldi handian. Mardones eta Nacheren gorpuzkiak Berriozarko hilerrian aurkitu zituzten, 2022ko martxoan, eta Segundo Hernandezenak Eliako hobi batean, 2015ean.

